

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0130 - Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Komunikazioa
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren esku dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren komunikazio estrategia osoa zuzentzea, bultzatzea eta gauzatzea, Komunikazio Planean zehazten diren lehentasunak eta ibilbide orria oinarri hartuta. Komunikazio Plana 2024-2027 Estrategia Planarekin lerrotatua dago eta hor definitzen dira datozen hiru urteetan finkatu beharreko errelato, ekintza plan eta komunikazio dinamikak. Helburu nagusia da Foru Aldundiaren jarduera herritarrengana hurbiltzea; erakundea ezagunago egin, abiatzen diren politika publikoak zabaltzea eta Aldundia bera prestigiatzeko. Horretarako, komunikazioa etengabea eta eraginkorra izango dela bermatu behar da herritarrek erakunde honi buruz duten pertzepzioa hobetzeko eta eguneratzeko. Era berean, barne komunikazioa eta Batzar Nagusietakoa indartu behar dira, gardentasunerako urratsak eginez eta langileen inplikazioa areagotuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Azken urteotan agerian geratu da erakunde publikoen eta herritarren arteko urruntzea. Gainera, ikerketa eta galdetegi guztien arabera, Gipuzkoako biztanleek Aldundiari buruz duten ezagutza oso mugatua da. Hori dela eta, beharrezkoa da prozesuen zilegitasuna sendotzea eta herritarrek eragile politiko eta instituzionalengan duten konfiantza eta inplikazioa areagotzea.

Herritarrengandik hurbil egonik, komunitate bizitzaren garapenean parte hartzea erraztuko duen komunikazioari heldu behar zaio. Komunikazio egokia egitea gizarte modernoaren konplexutasunari aurre egiteko modu bat da eta, are gehiago, Gipuzkoan, non gizarteak komunitate zentzu indartsua duen eta non konpromisoa, parte-hartzea eta lurralde oreka balio nagusiak diren Gipuzkoako gizartearen zatia. Horregatik, Aldundiak herritarrekiko eta eragile sozialekiko lankidetzat sustatuko du, baita komunikazioaren bitartez.

Gainera, herritarren ziurgabetasunak nabarmen egin du gora azken urteetan pandemia, geopolitikan ematen ari diren aldaketak eta populismoak nazioartean eragin duen gorakadaren ondorioz, eta, beraz, inoiz baino beharrezkoagoa da komunikazio kanal sendo eta gardenak bermatzea. Horregatik, gai honetan Foru Aldundiaren kudeaketari buruzko informazioa emateak inoiz baino garrantzia handiagoa dauka, eta uneoro informazio arduratsua, eguneratua eta egiazkoa ematea eskatu du. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin nahi du NBERen Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH). Aurrekontu programa honen kasuan, 5., 16. eta 18. helburuetan oinarritzen da: Genero Berdintasuna, Bakea, justizia eta erakunde sendoak, eta, azkenik, Kultura eta hizkuntza aniztasuna.

Behararen deskribapen xehatua:

Komunikazio Zuzendaritzak, hedabideei zuzendutako lana sendotzeaz gain, bere komunikazio kanalak sendotzera eta modernizatzen bideratutako ekimenak ezartzen jarraitu behar du, aurreko legealdian hasitako eguneratze prozesuarekin jarraituz. Legealdi honetarako erronka nagusietako bat da Foru Aldundiaren lana herritarrengana hurbiltzea; horretarako, komunikaziorako bide tradizionalak nahiz komunikazio tresna eta sistema berriak erabiliko ditu. Harreman ildo berriak abian jartzeko ahalegina egitea funtsezkoa da herritarrek ekintza publikoa urrun sumatzen duten uneetan.

Nori zuzendua:

Herritarrek, langileria eta Batzar Nagusiak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langilegoa, ekintzak garatzeko kontratatutako enpresak, baliabide ekonomikoak, komunikaziorako tresneria eta teknologia berriak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Bilerak, plangintzak, prentsaurrekoak eta ekitaldiak, prentsa-oharrak, komunikazio bide berriak hobetzeko prestakuntza, kontratuak.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Komunikazio Plana, eguneroko prentsa dossierra, prentsa areto digitalizatua, zuzeneko komunikazioa.

Programaren arau esparrua:

Hauteskunde garaiko araudia.

Kontratu publikoen araudia.

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Herritarrekin komunikazio kualitatibo eta kuantitatiboa sustatzea, konfiantza maila handiagoa lortzeko.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Komunikazio Plan berrian jasotzen diren helburuen > % 90 betetzea.	Kopurua	>=	22,50	45,00	67,50	90,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

GFaren komunikazioko plan estrategiko bat garatzea, Plan Estrategikoaren barruko politika publikoen garapena sendotzeko eta herritarren konfiantza lortzeko.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	514.458,30	91.646,32		2026/01/01	2027/12/31	
1.1 Ekintza Ekitaldi eta ekimenak babestea.	271.230,42	75.347,81		2026/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Prentsa aurrekoak.	112.265,19	16.298,51		2026/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza BBNNetako agerraldi eta batzarren inguruko oharrak.	69.610,07			2026/01/01	2026/12/31	
1.4 Ekintza Berrien jarraipena eta dokumentazioa	61.352,62			2026/01/01	2026/12/31	

2. Ekintza lerroa:

Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ateko harremanaren kalitatea hobetzeko.



% 2,41



% 97,30



% 0,29

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	1.609.122,70	1.295.772,68		2026/01/01	2027/12/31	
2.1 Ekintza Erakundearen komunikazioko kanpainak.	1.352.495,32	1.227.471,24		2026/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Sozializazio ekitaldiak.	200.225,74	46.332,24		2026/01/01	2027/12/31	✓
2.3 Ekintza I.HO.14.3 Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta	48.067,34	21.969,20		2026/01/01	2027/12/31	
2.4 Ekintza Kontratuak egiterakoan hizkuntza berdintasuna lortzeko klausulen gida aplikatzea.	8.334,30			2026/01/01	2026/12/31	

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Komunikazioko Zuzendaritzaren helburu nagusia da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, hauen perzeptzioa hobetuz eta eguneratuz, eta sendotzea barne komunikazioa eta Batzar Nagusiekikoa, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta langileen inplikazioa areagotuz. Lan honetan ezinbestekoa da genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea ekintza guztietan. Ezin da barne edo kanpoko komunikaziorako dokumenturik sortu ikuspegi hau txertatu ez bada lehenago.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Komunikazioko Zuzendaritzaren helburu nagusia da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, hauen perzeptzioa hobetuz eta eguneratuz, eta sendotzea barne komunikazioa eta Batzar Nagusiekikoa, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta langileen inplikazioa areagotuz. Lan honetan ezinbestekoa da hizkuntz berdintasunaren ikuspegia txertatzea ekintza guztietan. Ezin da barne edo kanpoko komunikaziorako dokumenturik edo kanpainarik sortu ikuspegi hau txertatu ez bada lehenago.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	Kontratazioa prestatzerakoan, hizkuntz beharrak aztertuko dira, eta horien arabera espedientearen dagozkion klausulak jasoko dira.
7.- Irudia	Euskararen presentzia bermatu eta zaindu
	Euskaraen erabilerari lehentasuna ematen zaio
8.- Herritarrekiko harremanak	Euskararen erabilerari lehentasuna ematen zaio sozializazio ekitaldietan
13.- Sortze-hizkuntza	Prentsaurrekoetan euskararen erabilera lehenestea
	BBNNetako agerraldi eta batzarren inguruko oharrek ematerakoan euskararen erabilera lehenestea
	Berrien jarraipena eta dokumentazioa euskaraz eta gazteleraz egiten da
	Euskararen erabilerari lehentasuna eman

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Garapen Jasangarriko Helburuak aztertu ondoren, aurrekontu programa honen 1go ekintza lerroak, hau da, "GFaren komunikazioko plan estrategiko bat garatzea, Plan Estrategikoaren barruko politika publikoen garapena sendotzeko eta herritarren konfiantza lortzeko", 16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak helburua hartzen du aintzat. 2. ekintza lerroak berriz, hau da, "Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremanen kalitatea hobetzeko", 5. Genero-berdintasuna, 16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak eta 18. Kultura eta hizkuntza aniztasuna helburuei lotua dago.

Kuantifikazioa: 3.511.000,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	5-Genero berdintasuna Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	48.067,34	21.969,20
Helburua	5.2 - Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria-modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-esplotazioa eta beste esplotazio-mota batzuk barne	48.067,34	21.969,20
Ekintza lerroak			
	Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ateko harremanaren kalitatea hobetzeko.	48.067,34	21.969,20
	16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	2.067.179,36	1.365.449,80
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	2.067.179,36	1.365.449,80
Ekintza lerroak			
	GFaren komunikazioko plan estrategiko bat garatzea, Plan Estrategikoaren barruko politika publikoen garapena sendotzeko eta herritarren konfiantza lortzeko.	514.458,30	91.646,32
	Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ateko harremanaren kalitatea hobetzeko.	1.552.721,06	1.273.803,48
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	8.334,30	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	8.334,30	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Ekintza lerroak		
Iritzi publikoari lotuta erakundeak duen komunikazio estrategia garatzea eta abiaraztea komunikabideen eta sare sozialen bitartez, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ateko harremanaren kalitatea hobetzeko.	8.334,30	
Guztira	2.123.581,00	1.387.419,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	2026	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2027	2028	2029	2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	174.311,00	166.686,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.952.660,00	1.952.660,00	1.387.419,00				1.387.419,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	4.235,00	4.235,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.131.206,00	2.123.581,00	1.387.419,00				1.387.419,00
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	2.131.206,00	2.123.581,00	1.387.419,00				1.387.419,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL		166.686,00				166.686,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		1.952.660,00		1.387.419,00		3.340.079,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES		4.235,00				4.235,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		2.123.581,00		1.387.419,00		3.511.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		2.123.581,00		1.387.419,00		3.511.000,00